EŔBESTEKO ELEŔTIAK

# ARTZA

(GEŔKERATIK EUSKERATUA)

Aŕtzak basatiak eta endaz odoltzale-maltzuŕak dira, batez be Europa-ipaŕaldeko eduŕ-aŕtean bixi diran aŕtz zuriak. Ule ugeri-latzez yantzita dagoz, ikuskerea baŕiz ankeŕa ta aŕpegi uxo-uxoa daukie; aboa latza, bilduŕgaŕia ta luzea, suŕa uŕdiña, begirakunea zoŕotza, oñak bizkoŕ-bizkoŕak, goŕputza buru-luzea, beso-oñak gizonaren beso-oñen antzekoak. Bere aŕamea ikeragaŕia, biotza maltzuŕa, eŕaiak maŕoak.

Aŕtzemeak umeak egin-baŕi-ta beŕtatik lo-dagi aŕagaz, eta bere seme maitea miñegaz miazketan dau, txalak alkaŕ laztanduaz alkaŕ miazketan daben lez. Eta txalai ezezik bei adaŕ-edeŕari be bere idekoaren naŕua atsegin yakona saŕitan ikusi daroagu, ta alkaŕegandik eztabe alde-egiten atsegin gozoa ase-aŕte, ta daŕaikien betzañaren biotza poztu oi-dabe. Aonan aŕtzemea bere semearen naŕua miazketan asazketan da, umeak gogaita uŕumez azalduaŕteño.

Ule ugeri-saŕatua izanaŕen negu gogoŕeko ekatxai bilduŕ dautse, ta saŕkaldeko axeak putz-eginda eduŕak oro estaltzen daunean leku ezkutu bila aŕtzuloetako estalpe nasai luze-zabaletan saŕtzen da; ta goseak eraso-ta oñak eta besoak miazketan yaŕduten da, ta aonan urdalaren aŕadea ildu ta arintzen dau.

LAŔAKOETXEA'TAŔ B. J.



# EUSKAL ESNALEA

1926

AZAROA

275'g zenbakia